



IMANOL ALVAREZ
IRAKASLE OHIA

Gure beldurra, haien indarra

45 urte bete dira lagun bat eta biok lehen euskal LGBTI+ elkartearen zena sortzeari ekin genionetik. Hortaz, espero izatekoa zen nik gehienbat sexu-askapenaren inguruko artikuluxkak idaztea orri hauetan. Ez da horrela izan.

Gay naiz, nolabait esatearren. Anitza, ere bai. Askotarikoak dira nire nortasunaren ezaugarriak eta hamaika kezkatzen nauten gaiak. Hori dela eta, hainbat kontuz azaldu izan dut iritzia. Oraingoan, baina, gertatzen ari denaz zerbait esateko beharra sentitu dut. Ezer luze-sakonik ez, besteak beste, paper hone-tan leku nahikorik ere ez neukakeelako; garaiotan Euskal Herrian eta inguruan LGBTI+ jendea jasaten ari garen erasoez hausnarketa xumea baino ez.

Frankismoaren amaiera ezagutu nuen. Homofobia zen nagusi, hitza oraindik asmatu gabe egon arren. Erasoa ere egon bazeuden, batez ere begirada edota irain motakoak; eraso fisikorik, apenas. Gizartea aldatuz joan da, gure lanari esker hein batean: ehunka hitzaldi, ikastaro, elkarrizketa, bilera, agerraldi... Gurean, jendea ohitu egin da askotariko afektibotasun erak bizitzera. Edo ikustera bederen. Legeak, oro har, egokituz joan dira... Noizbehinka lagunak batek gelditu ere egiten nau kalean egin duguna eskertzeko. Bazirudien ondo samar

geundela; bide onean gindoazela, alegia, egunen batean homofobia erabat gainditu ahal izateko. Edo ia.

Zer gertatzen ari da, orduan? Orain zenbait urte, erasoen gorakada txikia nabarituta, esan genuen gurea baino are matxistagoak eta homofoboagoak diren herrialdeetatik etorria zen jendea izan zitekeela kausetako bat, eta hor erronka genuela. Kontu handiz esan ere, gaizki ulertzeak saiheste aldera, guri kolorea gustatzen baitzaigu eta kultura-aniztasuna aberasgarria dela baitakigu.

Esan genuen, era berean, euren buroak gero eta gutxiengo txikiagoan ikusten zituzten homofobo-matxisten amorrutako erreakzio bortitza izan zitezkeela erasook.

Edozelan ere, kopurua eta larritasuna izugarri emendatu dira azken boladan, oso kezkatzeko modukoak izateraino. Zer egin?

Ez daukat errezeta magikorik, baina bai gauza pare bat argi: egoeraren diagnostiko sakon eta serioa gauzatu behar dela lehenbailehen (horretan, dauden behatokiak oso lagungarri izan daitezke, Gasteizekoa kasu) eta ez dugula kikildu behar. Are kontrakoa, gorroto mezu eta erasoen aurrean, ikusgaitasuna areagotu behar dugu, bai eta gogoan eduki beti gure beldurra dela haien indarra. ●



CASTILLO SUÁREZ
IDAZLEA

Maitasun ekintza bat

María do Cebreiro galiziar poetarri irakurri diot berriki idazlearen artean ezinezkoa dela lagunak izatea, lagun bakarrak hildakoak direla, eta behar bada bai, nago ingurura etengabe begiratzeko dugun joera horrek egiten gaituela sentiberago ingurukoak akatsak, mespretxuak eta gabeziak ikusteko. Nik egia esan, literaturari lotuta bizi izan ditut nire bizitzako nahigaberik handienak, edo, arrenkurarik luzeenak, hobeki esan. Nolanahi ere, Cebreirok salbuespenak badirela esaten du, eta zerrendatzen ditu bere bizitzan era

batera edo bestera presente izan diren beste idazle batzuk, aholku onak eman dizkietenak, edo baieztapen gogoangarriak, betiko gogoan iltzatuta geratzen zaizkigun horietakoak. Areago, esaten du idazten duen bezala idazten duela, hain zuzen ere, irakurri dituen liburuen-gatik eta batik bat liburu horien idazleekin izan dituen topaketengatik. Bere hitzetan, lagunekin ditugun harremanak, eta oro har maitetasunak, historia kristalizatzeko modu bat dira. Idaztea maitasun ekintza bat da beretako. Eta eskola. ●